

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kulturak 90.000 euroko diru-laguntza emango du film laburrak eta ertainak egiteko

Zuzendari nafarra duten eta % 50 gutxienez Foru Komunitatean filmatutako ekoizpenek jaso ahalko dituzte laguntzak

Astelehena, 2016.eko irailak 5

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak diru-laguntzen deialdi bat abian jarri du (90.000 euro) film laburrak eta ertainak ekoizteko 2016an. Laguntzak eskatzeko epea urriaren 6ra arte zabalik izango da.

Deialdiaren oinarriek ezartzen dutenez (gaur, asteleheneko [NAOn](#) argitaratuak), diru-laguntzak fikziozko obren, dokumentalen, esperimentazioko edo animaziozko obren ekoizpenerako dira, 60 minutu baino gutxiago irauten dutenak, eta zinema-aretoetan, telebistan edo Interneten erakusteko direnak. Haien eskuratzeko, proiektuko zuzendaria nafarra edo 2015a baino lehen bertan errolatuta izatea eskatzen da, eta filmazioaren % 50 gutxienez Foru Komunitatean egitea.

Laguntzen zenbatekoa proiektuko aurrekontuaren % 50era heldu ahalko da (27.000 euro, gehienez ere), eta honako hauek ordaintzeko erabiliko dira: soldata-kostuak, ekoizpenerako beharrezko langileen gizarte segurantzaren, haien mantentze gastuak, ostatua eta joan-etorriak, kanpoko baliabideen kontratazioa (ekipoak eta baliabide materialak alokatzea eta baliabide profesionalak kontratatzea), eta proiektuan sartutako jarduerak zabaltzeko gastuak eta sustapenerako materiala egiteko gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen proiektuak hautatzeko (2016ko abenduaren 9a baino lehen hasiko beharko dira, eta 2017ko urriaren 31 rako amaituta), honako hauek hartuko dira kontuan: ekoizpenaren kalitate artistikoa eta interesa, haren bideragarritasuna eta koherentzia ekonomikoa, Nafarroan filmatutako portzentajea, inplikaturik dauden Nafarroako enpresa-baliabideak eta giza baliabideak, proiektuaren interesa Nafarroako kultur ikuspegiko eta ikus-entzunezko arteen egungo testuinguruko berrikuntzari, egokitasunari, eraginari eta garrantziari dagokionez, eta euskararen erabilera nahiz presentzia.